

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zuzendari nagusia izendatzea

2010eko ekainaren 25ean behin betiko onespena eman zion udalbatzak Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoari, non arautzen baitira, besteak beste, gobernuaren eta administrazioaren oinarritzko mailak, eta horien funtzionamendua, antolaketa eta erregimen juridikoa xedatzen.

Araudi horretan berariaz arautzen dira zuzendaritza organo motak, horien zereginak zein izendapen erregimena, eta horrekin lotuta, 44. artikulua honela dio:

Tokiko Gobernu Batzarrak izendatu nahiz kargutik kenduko ditu koordinatzaile nagusiak eta zuzendari nagusiak nahiz antzeko organoak.

Eta bigarren paragrafoan honela jarraitzen du: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 130.3. artikuluan xedatutakoaren arabera izendatu beharko dira.

Aipatutako 130.3 artikulua, berriz, hau xedatzen du: "Koordinatzaile nagusia eta zuzendari nagusia, gaitasun profesionala eta esperientzia aintzat hartuta, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako karrerako funtzionarioen artean izendatuko dira, edo A1 azpitaldean sailkatutako multzo edo eskaletako gaikuntza nazionalako funtzionarioen artean, salbuespen gisa; eta udal-erregelamendu organikoak ahalbidetzen badu, titularrak ez du zertan funtzionarioa izan beharko, zuzendaritza-organorik eginkizunen ezaugarri bereziak direla-eta". Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoak jasoa du aukera hori, eta, horrenbestez, beharrezkoa denean, zuzendaritza-organoretako lanpostuak funtzionario ez direnek edo lanpostu horiek betetzeko eskatzen den titulazioa ez dutenek bete ahal dituzte.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ildotik, proposatzen da Izaskun Iriarte Irureta andrea Gasteizko Udaleko Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zuzendari nagusi izendatzea.

Horrenbestez, Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 44. artikulua —Tokiko Gobernu Batzarraren esku uzten baitu zuzendari nagusiak izendatu eta lanpostutik kentzeko eskumena— eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124.4.b) artikulua —Tokiko Gobernu Eraberritzeko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— xedatutakoarekin bat etorriz, alkateari dagokio udal-administrazioaren zuzendaritza, eta, ondorioz, proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Izaskun Iriarte Irureta andrea Gasteizko Udaleko Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zuzendari nagusi izendatzea, 2021eko urriaren 18tik aurrerako ondorioekin.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 4an

Alkatea

GORKA URTARAN AGUIRRE